


EVSKAL
iZTEGI
LABURRA

Etxebarria'tar Juan Anjel



EUSKAL IZTEGI LABURRA

(A)

Etxebarria'tar Juan Anjel

S . Anton'go Katekesia

Euskal-argitalpenak

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

- 1 — Phedro'ren Alegiak I
- 2 — Martial'en Ziri-Bertsoak
- 3 — Phedro'ren Alegiak II
- 4 — Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
- 5 — Euskal Iztegi Laburra (A)

Andoain'go

Artolazabal'dar Miren Gentzane'ri:

Gorputza gogor,
irria gozo,
euskaldun alor
andiari so.

ITZAURREA

Euskal-iztegi bat egiten asita, aurreztik dakit lan opagarri ta bildurgarri baten sartu nazala.

Zeintzuk itz artu, zeintzuk azalpen emon? Zenbat buru, ainbat aburu. Nik nirea. Burua bat eta eskuak bi baiño ez. Ori dala-ta, lan estu ta laburra urtengo yat, noski.

Parkatzen ba'daustazu, ni pozik. Parkatzen ez ba'daustazu, zeuk ikusi. Artu egizu eroapen apur bat eta letra guztiak, banaka edo biñaka, jasoko dozuz. Azke-nean, azalak ipiñita, iztegi mardul eta ederra eukiko dozu, nire buru-gogorrari ta zure biotz-bigunari eskerrak.

Eta zeuk eta neuk, emon dagioguzan eskerrak Urbie-ta'tar Ixidor, irudi-egille zintzoari.

Egilleak.

A

A. - Itz dagianagandik urrun dagoana. Ikusten ango mendi a?

Abade. - Opariak eskeintzen dituan gizona / Mezadun egindako gizona.

Abadegai. - Abaderako ikasten dabillena.

Abagune. - Gauza baterako bitarte egokia.


Abail. - Arriak indarrez botatzeko narruzko edea.



ABAIL

Abaildu - Abaillagaz bota./ Igali-pixuaz adarrak lur jo.

Abaraska. - Ezti-orrazia.



ABARASKA

Abaro. - Abereak batzen diran leku gerizpetsua.

Abar. - Landara baten enboretetik jaioten dan zatia/. Caiñerakoa: etxeak, kaleak eta abar.

Abarka. - Oin-azpia estaltzen dauan narruzko oskia.


Abarkagille. - Abarkak egiten dauzana.

Abarkari. - Abarkak lotzeko lokarria.

Abarrots. - Aizeak eraginda abarrak ataraten dabena otsa.

Abartsu. - Abar askoduna.

Abe. - Ol luze-lodia, etxeetan sapaia egiteko ta etxegin-tzari eusteko erabilli oi dana.



A B E

Abegi. - Norbait edo zerbait artzea. Abegi ona egin eusten ango lagunak.

Abeldi - Lurralde bateko abereak osoan artuta.

ABELDIA

ABERE

azurdunak

- 1—Bulardunak (1)
- 2—Egaztiak (2)
- 3—Narrastariak
- 4—Ur-lurtarrak
- 5—Arraiñak

- (1) Tximiñuak
- Aragizaleak
- Azal-lodidunak
- Ausnarlariak
- Atzazkal batekoak
- Izaberak
- Sabel-sakeldunak
- Zomorro-jaleak
- Karraskariak
- Saguxarra

azurgabeak

- 1—Armiarmak
- 2—Zomorroak
- 3—Arrak
- 4—Eun-oindunak
- 5—Otarraiñak
- 6—Abel-landarak
- 7—Soin-berak
- 8—Zomortxoak

- (2) Arrapalariak
- Txoriak
- Oilloantzekoak
- Ankaluzeak
- Igerilariak

Abeletxe. - Abereak batzeko lekua.

Abelgorri. - Idi edo bei. Ausnartzaille bularduna, adarrak leun, musturra zabal-billoisik, buztana luze ta atzekaldean galpardon, daukazan aberea.

Abelziti. - Abereetzaz diarduan jakintza-arloa.

Abeltzain. - Abereak zainduten dauzana.

Abenda. - Jatorri-mueta. Eusko-abendakoak, jatorriz euskotar diranak.

Abendu. - Urteko azkenengo illea (Lotazilla, Gabonilla). / Jesukristo jaio aurreko laugarren domekatik asi ta Gabon-bezperarteko aldia.

Aberaski. - Ondasunak / Aberats-moduan.

Aberastasun. - Aberats izatea. Ondasun.

Aberastu. - Aberats egin.

Aberats. - Ondasun andien jaubea.

Abere. - Berez bizi, senti ta igitzen dan biziduna.

Aberetasun. - Abere izatea.

Aberetu. - Abere egin, biurtu.

Aberetxo. - Abere txiki.

Aberetzar. - Abere andi.

Aberri. - Asabak, antxiñakoak, jaio diran erria. Ene aberri laztana!

Aberriratu. - Aberrira biurtu. Gorputzez ezin ba'dozu, aberriratu zaitez gogo-biotzez.

Abertzale. - Aberria maite dauana. Zu abertzale ta erdalzale?

Abeslari. - Abestiak, kantak, emoten dabillena.

Abesti. - Soñuz emoten dan bertsoa.

Abestu. - Abotsagaz ots ere-sintuak egin.

Abi. - Arrautzak ipiñi ta umeak aitzeko egaztiak egiten daben oe-antzeko bat.



A B I

Abiadura. - Igikerako bizkortasuna.

Abizen. - Notiñak bereizteko sendi-izena. Izena? Kepa. Ta abizena? Urkieta: Urkieta'tar Kepa.

Abo. - Gizonaren ta abere askoren buru aurrekaldeko utsune idegia, janariak irunsiteko.




A B O

Abots. - Aboaz egiten dan otsa. Birikietatik datorren aizeak zintzurretik urtetea, abo-aria dardaratzean egiten dauan otsa.

Aburu. - Eritxi. Erabagi. Nire aburuz, nik uste dodanez.

Adabaki. - Zar edo urratu dagoanari josten yakon oial edo eun-zatia.



ADABAKI

Adabatu. - Adabakiz konpondu.

Adaburu. - Zugatz baten goiko orri-abarrak.



ADABURU

Adar. - Landaren enborretik jaioten dan zatia. / Abere batzuk bekokian dauken azurren luzapena, leka gogorrez estaldua.

Adar-Etxe. - Beste baten menpean dagoan ta beronen edapena dan etxea. Diru-etxe onek Espāni guztian adar-etxeak daukaz.

Adats. - Buru-ule luzea, bizkar-aldera zabaldua.

Adei. - Iñori egiten yakon begirunezko ta lotsazko egipena.



ADATS →

Adeitsu. - Adeiez ibiltan ta egoten dakiana.

Adibide. - Zerbait irakatsi edo adierazoteko bidea. Beste adibide bat ipiñiko dautsut. Adibidez, esate baterako.

Adierazle. - Zerbait ikasi ta adierazten dauana.

Adigogor. - Adimen-motza.

Adiguri. - Begirunezko emaria. Adiguritsu. - Adiguriz gauzak egiten dauzana.

Adi-Jabe. - Aditzak adierazoten dauana dagian itza. Ni naz; *ardiak* bedarra jaten dabe.

Adikaitz. - Ulertzeko gatxa.

Adikor. - Arduratsu. / Adei-bera

Adimen. - Ulertzeko almena.

Adimendun. - Adimena daukana.

Adin. - Jaiotzetik igarotako aldia.

Adiñon. - Naiko. Egoki.

Adionez. - Garaiz, sasoi egokian.

Aditu. - Entzun. Ulertu. Kontuan euki. Aitu ondo, entzule maiteak.

Aditz. - Izatea, egitea edo egotea, geienetan aldiko zertzeladakaz, adierazoten dauan itza. *Etorri*: orain

nator; izan; ori ona *da*; *galdu*; olan dana *golduko dozue*.

Aditz-Joko. - Aditzaren askotariko erak erabiltea. Dot, dozu, neban.

Aditzondo. - Esaldiaren atala, aditzaren esangura zeatzago egiteko erabilten dana. *Ondo* ibilli naz / *berandu* zatoze *gaur*.

Adizkide. - Betengana joera garbi daukana.

Adizkidetasun. - Adizkide izatea.

Adizkidetu. - Adizkide egin, biurtu.

Adore. - Kemena. Zerbaiterako barruko indarra.

Adoretu. - Adore emon.

Adoretzu. - Gogotsu. Adoreak darabillena.

Adu. - Zori. Gertaeren albearezkotasuna.

Adur. - Ustegabeko jazoera.

Adur. - Bulardunen aotik darrion txistua.

Aga. - Makil luzea. Ardatza. Suaga, kañoia. Ontziaga, itsasontzi baten tantaia.

Agaka. - Euskeraren izkien bilduma.

Agerkai. - Gauza bat egiztatzeko idazkia edo egipena.

Euskal-Agaka

Idaz-irakurkera

a
g
k
y
j
x
au
ai
e
d
t
ts
tz
tx
d
f
eu
ei
o
l
n
l
ñ
oi
u
r
r
a
z
ui
i
b
p
m

Izenak

a
ga
kask
ya
ja
axa
au
ai
e
de
test
atselts
atzeltz
txe
ilde
ite
eu
ei
o
lo
non
ilo
iño
oi
u
ur
ur
sus
zuz
ui
i
bi
pi
mi

Agerpen. - Agirian jartzea.
Agiriko egitea.

Agerraldi. - Agertzearenaldia.
Agertu bat egiten dan unea.

Agertu. - Azaldu. Agiriko egin.
Erakutsi. Illunpean egoana
argitaratu.

Agin - Matalezurrean agiri di-
ran azurrezko zie-antzeko
anditsuak.

Agindu. - Goikoak menpekoa-
ri damotson legea. Egiten
dautson eskabidea.

Agindu. - Lege bat emon edo
eskabide bat egin

Aginka. - Agiñakaz autsiki edo
zauritu.

Agintari. - Aginduak emoten
dauzana. Nagusia.

Aginzotz. - Agiñak garbitzeko
zotza.

Agiñean. - Zerbaiterako une
-unean. Il-agiñean dago.
Itotzeko agiñean aurkitu
nintzan.

Agiraka. - Esan edo egin daua-
nagaitik gaitzetsiz norbait
zuzentzea.

Agiri. - Argi. Argi ta garbi da-
na. Oii gauza agiua da.

Agiri. - Zerbait artu dala-ta
idazki izenpetua.

Agirian. - Zabal-zabal ibilli
edo ipiñi.

Agiriko. - Zabal dabillena.
Kanpora-aldekoa.

Agitu. - Jazo.

Agó. - Ikus. Abo.

Agor. - Urik ez daukana.

Agortu. - Ura amaitu. Ur gabe
gelditu. Iturriak agortu
dira, aurtengo legortiaz. /
Amaitu, ezer gabe gelditu:
Azkenego idaztiraño agortu
da. Lengo gogai argiak
agortu yataz.

Agur. - Inñori adeiez itz egitea.

Agure. - Urteetan ondo sartu-
tako gizona.

Aguretasun. - Agure izatea.

Aguretu. - Agure egin. Agure
izatera eldu.

Agurgarri. - Agur egitea me-
rezi dauana.

Agurtu. - Agur egin.

Agurtza. - Ama Birjiñaren ez-
kutukiak gogoratzeko egi-
ten dan otoa. Bakoitzaren
ondoan Aita Gure, amar
Agur Mari ta Aintza esa-
ten da.

Aida. - Idi-beiak ibilliarazote-
ko abotsa. / Une.

Aide. - Sendi-lokarriz inñori
batuta dagoana.

Aienatu. - Alde egin, eragin.
Ta bat-batean salatari guz-
tiak lotsarren aienatu ziran.

Aiko. - Ara, orra or. Aiko so-
ñu polita!


Aiko-maiko. - Aitzaki, atzera
-aurrera. Esan egidazu ai-
komaikoetan ibilli barik.

Ainbat. - Asko. Ainbat obe, az-
koz obeto. Ainbat diru batu
eban, diru asko batu eban.

Ainbeste. - Gauza baten mu-
gagabeko kopurua. *Ainbes-
te* diru batu al zenduan!

Aingeru. - Bera otseinduteko
Jaungoikoak sortutako ze-
rutarra.

Aingira. - Oin-gabeko arraiña,
biribilla ta koipez bete-
rkoa.




AINGIRA

Aingura. - Amu biko burdi-
nezko tresna, itsas-ondoan
itsasi ta ontzia lotzeko.

Aintza. - Inñori emoten yakon
omena.

Aintzagarri. - Aintza merezi
edo aintza artzeko duin
dana.

Aintzaldu. - Aintza emon, ain-
tzaz erabilli. Aintzaldu dai-
gun Agate Deuna.



AINGURA


Aintzatsu. - Aintzaz beterik.

Aintzin. - Aurreko.

Aintzindari. - Zerbaiten nagu-
sia. Zerbaiten agintari da-
na; aurrelari doana.

Aintziñate. - Antxiñako aldia./
Asabengandik semeakana
datorren antxiñako oitura
ta irakatsia.

Aintzira. - Lur-sakoneko ur
-andiak.



AINTZIRA

Aiña. - Beste.

Aipagarri. - Aipatzea merezi
dauana.

Aipatu. - Esan-idatzien alde
notin-lekuak azaltzea.

Aipu. - Izen andia.

Aisa. - Errez, errezto.

Aita. - Sortu dauan arra./ Ja-
torri baten nagusia.

Aitaginarreba. - Senarraren
aita emaztearekiko, edo
emaztearena senarrarekiko.


Aitatu. - Ezagutu daiten zeo-
zer agertu.

Aitita. - Aitaren edo amaren
aita norbaitekiko.

Aiton. - Aitita.

Aitor-entzule. - Aitortzan
pekatariak entzuten dauzan
apaiza.

Aitortegi. - Aitortza egiten
dan lekua.



AITORTEGI

Aitortu. - Norberak bere egi-
pen, asmo edo sentipenak
azaltzea. / Pekatariak aitor-
entzuleari pekatuak ager-
tzea.

Aitu. - Amaitu. Indarrak uts
egin. / Ulertu.

Aitz. - Atx.


Aitzaki. - Guzurrezko edo
itxurazko arrazoa.

Aitz-negar. - Aitzuloetako sa-
pailan eskegita egoten dan
katezko gogorgunea.

Aiurri. - Gogo-zertzeladak
osotzen daberen norberaren
izateko modua.


Aize. - Eguratsean sortutako
aixe-igidura.

Aize-ontzi. - Aize oialez da-
billen ontzia.



AIZE-ONTZI

Aize-orratz. - Aizeak nundik jotzen dauan igartzeko etxegainetan jartzen dan metalzko zerra.




AIZE-ORRATZ

Aizkolari. - Aizkoraz bearreran ari dana.




AIZKOLARI

Aizkora. - Ebagitzeko tresna, galtzairuzkoa, endaiduna.



AIZKORA


Aizpa. - Aizta,
Aizta. - Aita-amak, edo aita edo ama, bardiñak dituan andra, beste andrerekiko.
Aizto. - Galtzairuzko orria, alde batetik zorrotza, kirten ta guztikoa.



AIZTO

Akats. - Gauza baten ertzean egiñiko ebagi edo zirrikitua. / Gauza bateri dago-kionaren eza.
Akeita. - Kafe-aziaz, erre ta eiota gero, egiten dan edaria.
Akiakula. - Zerbaiten alde edo zerbaitegaitik norberan burua zuritzeko ekarten dan arrazoi-itxurakoa.
Akitu. - Nekatu. Indarrak amaitu.

Akullu. - Idiak-eta zirikatze ma-killilla.



AKULLU

Al. - Zerbaiterako eskua, almena. Etorri al ba' dozu.

Ala. - Bereizteko lo-karri-itza. Zein da zurea su ala a?

Alaba. - Gurasoak sortutako emazteki, eurekiko.

Alabaiña. - Alan ta guzti be.

Alabaorde. - Sortu ez dauan aita edo amarekiko, beste aita-amaren alaba.

Alabatzako. - Alabatzat artutakoa.

Alabatzatu. - Alabatzat artu.

Ala-bearra. - Gizonak eta gauzak darabilzan ezkutuzko indarra, jentillen ustean.

Ala-bearrez. - Itzuri ta igarri ezinezko goraberak eraginda jazotea.

Alabitxi. - Andra bat aita-amabitxielikiko.

Alai. - Pozez beterik.

Alaiki. - Alaitasunez.

Alaitu. - Alaitasuna emon, artu.

Alaitsu. - Pozarren dabillena.

Alaka. - Illetak joka.

Alako. - A lakoa.

Alakotu. - Aren itxurak artu, egin.

Alan. - Era aretara.

Alargun. - Ezkon-laguna il yakon ta bigarren ezkontza egin gabe dagoana.

Alargundu. - Alargun gelditu.

Alarguntza. - Alargunaren egokera.

Alatz. - Izatezko indarren gainetik dagoan Jainkoaren almenaren egipena. / Gauza bakan ta arrigarria.

Albaiteru. - Abereen gexoak osatzen dauzana.

Albo. - Zer baten eskuma edo eskerreko ertzean dagoana.

Alda-Etxe. - Eleizara joateko baseritarrak jantziak aldatzen dabezan etxea.

Aldakaitz. - Aldatzeko gatxa edo eziña.

Aldaketa. - Lengo era itxi ta barria artzeko egipena.

Aldakor. - Aldatzeko errez dana.


Aldameneko. - Ondokoa.

Aldapa. - Lur maldatsua.

Aldarte. - Soin-gogoen egokera.

Aldatu. - Lengo era itxi ta barria artu.

Aldatz. - Leku maldatsua.



ALDATZ

Alde. - Albo.

Alde. - Kanpora. Alde emetik aguro!

Aldean. - Ondoan. / Norberagaz euki. Ba al dozu dirurik aldean?

Aldegain. - Gauza baten aurreko aldea

Aldendu. - Egoan lekutik zerbait kendu.

Alderantzi. - Gauza baten atzeko aldea.

Alderdi. - Asmo edo elburu bardiñeko diran gizonen batza / Inguruko lurraldea.

Aldi. - Aldatzen diran gauzen iraupena / Norbait bizi edo zerbait jazoten dan epea.

Aldigaitz. - Zentzunaren naste laburra edo indarrrik-ezaz burua makaltzea.

Alditxar. - Gauza txarren bat jazotea / Aldigaitz.

Aldiz. - Txandaka.

Aldra. - Izaki asko baltsan.

Aldun. - Almena, aginte edo eskua daukana.

Ale. - Uzten azi ta igalia.

Alegi. - Notiñak eta Abereak notintzat artuta, guzurrezko azalpenen bidez irakaspén bat emoten dauskun eleder-idazkia.

Alegin. - Gorputz edo gogo-indarrak kementsu erabiltea.

Alegindu. - Alegiñak egin.

Aletegi. - Aleak gordetzeko lekua.

Algaraz. - Barre-zantzoka.

Alguztidun. - Guztia al dauana.

Alkandora. - Oialezko barruko soiñekoa.

Alkar. - Bata bestearikiko.

Alkarrizketa. - Notin biren edo geiagoren arteko aldizkako izketa: Platon'en alkarrizketak.

Alkartasun. - Alkar artzea.

Alkartu. - Alkar artu. Bat egin.

Alke. - Lotskizun.

Alkuntza. - Baten bestearikiko almena.

Almen. - Norberak daukan eskua, ala.

Aloger. - Nagusiak menpekoari bere morroitzalderako emoniko saria. / Iñori zerbait alogeratzen yakon saria.

Alogeratu. - Iñori zerbait emotea, erabagitatako aldi baterako ta saria artuteko.

Alor. - Ereiteko dan zelaia.


Alper. - Egin bear dauanerako nagi dana.

Alperrik. - Bear edo gura dana lortu barik.

Alperrontzi. - Alper andi.

Alpertu. - Alper egin, biurtu.

Altara. - Oparia il ta eskeintzeko maia. / Meza emoteko arrizko maitxoa.



ALTARA

Altxor. - Baturik eta gorderik dagoan aberaskia.

Altzo. - Norbait jesarrita dagoala, garritik belauñeraño jantziak egiten dauan sakingunea.



ALTZO

Ama. - Umea izan dauan emakumea. / Izaki emea bere seme-alabekiko.

Amabi. - Amar eta bi.

Amabitxi. - Ikurton bat atzerakoan, notin bat aurkeztuten dauan andra.

Amabosna. - Bakoitzeke amabost.

Amabost. - Amar eta bost.

Amagiarreba. - Senarraren ama emaztearekiko edo emaztearena senarrarekiko.

Amai. - Gauza bateri buru emotea: Erroma'ko epaia, auziaren amaia. Roma locuta est, causa finita est.

Amaika. - Amar eta bat.

Amairu. - Amar eta iru.

Amaitu. - Amaia egin, etorri.


Amalau. - Amar eta lau.

Amalauko. - Amaika izkidun amalau bertsodun olerkia, lauко bitan ta iruko bitan egiña.

Amama. - Norbaiten aitaren edo amaren ama.

Amar - Bederatzi ta bat.

Amarau. - Zortzi ankako mamua; ego bakoa, buru txikia ta sabel-zorro andia. Sabeleko morokil-antzeko koipeaz eun zuria eioten dau euliak-eta arrapatzeko.



AMARAU

Amareun. - Amarauak egin-dako euna.

Amarreko. - Mus-jokuko tanta.

Amarren. - Zati oso baten amar zatietako bakoitza.

Amasei. - Amar eta sei.

Amatau. - Sua edo argia geldiaraztea.

Amestu. - Ametsak izan, euki.

Amets - Norbaitek, lo dago-ala, gauzak iruditzea.

Ametsetan. - Ametsak egiñaz. Ametsak bai'lirean.

Amorde. - Aitaren emaztea, arek lengo ezkontzatik dauzan seme-alabekiko.

Amorrai. - Ur gozoko arrain bat.

Amorratu. - Amorruez egon.

Amorratu. - Gauza bateri oso-emona; oso-osoan alde dagoana: Euskaltzale amorratua da.

Amorru. - Asarre bizia.

Amu. - Burdiñezko arpoi txikia arraiñak atrapatuko.

An. - Leku aretan.

Anai. - Beste batekiko guraso bardiñak dituan gizona.

Anaidi. - Elburu bardiñak batzen dauzan notiñen baltsa.

Anderetxo. - Andere gaztetxo.

Andi. - Oikoa baiño geiago dana.

Andiagotu. - Andiago egin.

Andiera - Gauzen goibea.



AMU

Andika - Gaiñ gaiñetik, zertzeladak alde batera itxita./ Sail anditan. (Saldu).

Andiki. - Bere maillan andia ta argia dan notiña.

Anditu. - Andi egin, biurtu.

Andra. - Ezkondutako emakumea. / Edozein emakumeri gizalegez emoten yakon izena.

Andregai. - Ezkontzeko asmo-tan ta ametsetan mutil battegaz dabillan emakumea.

Anka. - Bizidunen beko adarra, oin-belaun artekoa.

Ankape. - Pelota edo palanka anka-azpitik botatzea.

Anker. - Inñoren miñaz atsegin dana. Gizata-sunik ez dauana.

Antolatu. - Gauza bat eratu, lege batzuen azpian.

Antxume. - Auntzaren umea.

Antz. - Olako edo alako itxura.


Antze. - Zerbait egiteko trebetasuna.

Antzeko. - Zerbaiten edo norbaiten antza daukana.

Antzera. - Era bardiñean.

Antzerki. - Eleder-idazki bat.


Antzikur. - Leiarrezko iekia, atzekaldean bakuz estalia, aurrean dagozan gauzak bertan islatu daitezcan.



ANTZIKUR

Antziñako. - Lengo denporetan izandakoa. Aspalditik dana.

Antzoki. - Antzerkiak agertzeko lekua.



ANTZOKI

Antzu. - Umerik ez dakarren emea.

Añen. - Notin edo gauza baten aurkako gaizki-esana.

Ao. - Begira. *Abo*.

Aolkatu. - Aolkuak emon.

Aolku. Onerako itza / Zerbait eragiteko itza.

Aopean. - Ixillean eta ezkutan bezela.

Aots. - Zintzurra dardarazten dauan arnas batez oguzten diran izkiak: a, e, o, u, i.

Aots-Lagun. - Oguzia izateko aots baten laguntza bear dauan izkia: b, be; m, ma.

Aoz. - Berba utsen bidez.

Apa. - Ongi-naia erakusteko, norbait edo zerbaiteri ezpatakaz egiten yakon ikutua.

Apain. - Edergarritz jantzia.

Apaindu. - Apain ipiñi.

Apaiz. - Begira. *Abade*.

Apal. - Arrokeririk gabekoa.


Apaldu. - Apal egin./ Beratu / Aparia jan.

Apaltiar. - Aparia jateko deitua.

Apar. - Ur-gaiñetan sortutako anpuluak alkarri josiak.

Apari. - Gabeko jatordua.

Apatz. - Ain trinko ez dana.



A P A R

Apendu - Bidegabe edo kalte baten ordaina artu.

Apuko. - Zerbaiti itzurtzeko arrazoia.

Apur. - Gauza baten zati txikia.

Apatx. - Jesarri (umeen berba)

Apurka. - Sail edo zati txikitari.

Apurtu. - Apurra egin.

Aragi. - Abereen soinaren atal biguna.

Aragikeri. - Aragiaren atsegina -zaletasuna. / Ezkontzatik kanpoan aragiz bat egitea.

Aragotu. - Bear dan edo len baino aurrerago joan, eroan.

Arakatu. - Arduraz aztertu.

Arakin. - Abereak iltzen dituenak. / Aragia saltzen dauana.

Aran. - Menditarteko lur-zelaia. / Aranondoaren igalia.

Aranots. - Gorputz gogor baten bihurtuta, barriztatzen dan otsa.

Arantz. - Landara batzuen azaleko zotza. / Arraiñen atal gogor-zorrotza, azurren ordezkoa.

Arañegun. - Atzo-aurreko eguna.

Araño. - Leku aretaraiño.

Arategi. - Aragia gordetzen dan tokia.

Aratu. - Ara eldu, joan. / Arakatu.

Aratuste. - Austerregun-aurreko iru egunak. / Egun orreitan egiten dan erritar jaia.

Aratz. - Bizikeran eratsua. / Itxura ederrekoa.

Arau. - Jardukeran gorde bearreko bidea.

Arautu. - Gauzak arauz antolatatu.

Arazo. - Beste gauza baterako astia kentzen daukun bearra.

Arbasta. - Abarren ondakiñak.

Arbi. - Ortuari zuri edo beltzegizka.

Arbin. - Estu ta larri. / Estutasun.


Arbindu. - Arbin ipiñi.

Arbintasun. - Larri-unea.

Ardantegi. - Ardaoa-ta saltzen diran denda.

Ardao. - Matsaren mama.

Ardatz. - Itzul-biran dabilen gauza bat aldetik aldera zulatzen dauan aga, igikeran eutsiegiten dautsona



A R D A T Z

Ardi. - Ari-emea.

Ardietsi. - Eskuratu.

Arditegi. - Ardiak batzeko lekua.

Ardura. - Norberan gain dagon arazoa. / Datorken gatxaren bildurra: Arduratan nago ama etorri arte. / Zerbait ondo egiteko alegia.

Arduradun. - Zerbaiten ardura daukana.

Arduratu. - Zerbaiten ardura artu. / Zerbait egaitik ardura artu.

Are. - Atxetatik jausitako apurren pilloa.

Arean. - Zer edo zer: Asko daukazu? Arean bai.

Areik. - Itz dagianagandik urrun dagozanak.

Arerio. - Inor barru gaiztoz begiratzen dauana.

Arestian. - Oraintsu.

Areto. - Etxe bateko gela nagusia.

Arezi. - Aretx asko dagozan tokia.


Argal. - Aragiz me.

Argazki. - Notin naiz gauza-
ren bat agertzen dauan
irudia.



ARGAZKI

Argi. - Sutan dagozan gorpuzkia darion argi-unea / Kanpotiko ekaia, gorpuzkia argitu ta ikusgarri egiten dauzana.



ARGI

Argi-Begi. - Egunsentia. Argiaren astea.

Argibide. - Zerbait argitzeko edo agirian jartzeko erabilten dana.

Argi-Mutil. - Argia zutik eukitzeko tresna, oiñarri baten gainean dagoana.

Argin. - Arriak lantzen dituana.

Argi-Ontzi. - Argia emoteko tresna.

Argiro. - Argitasunez. /Argi ta garbi.

Argitaldari. - Irarkolaren bidez idazki bat ataritzen dauana.

Argitalpen. - Argitarateko idazki bat irarkolan sartzea.

Argitaratu. - Irarkolaren bidez atara. /Agirian jarri, agiriko egin.


Argitu. - Argi emon, argi biurtu; argiz, argitan jarri.

Argizari. - Ezti-orrazien gela-
txoak egiteko erleak egiten daben gun sendoa.



ARGI-ONTZI

Ari. - Josteko erabilten dan linuzko-edo zati me-luzea.



ARI

Ari. - Bulardun ausnarlaria.

Arildu. - Aria birla baten bildu.

Arin. - Bizkor dabillena. /Laster/Pixu gitxikoa.

Arindu. - Arin egin. /Zerbaiten zama txikiagoa egin.

Aritu. - Zetan edo atan jardun.

Aritz. - Orri iraunkorrek eta ezkurak emoten dauzan zugatza.

Arkaitz. - Itsasoan naiz legorreen jasoten dan arri andi-zuta.


Arkakuso. - Ego biko mamarro gorrizka, anka gogorrekoa, saltoka ibiltzen dana.

Arkatz. - Zurezko biribil haten sartutako grafitozko agatxoa, idazteko-ta balio dauana.

Arkibide. - Gauza jakingarrien letrokada eraztua.

Arkitu. - Billatzen danagaz ustegabea topo egin.

Arkoloka. - Iztapea zaldi-ganean ta anakak alde banatara zaldiz joan.




ARKATZ

Arkume. - Ardiaren umea, urtebete baino geiago ez daukana.

Arlandu. - Landutako arria.

Arlo. - Ez ta baiko gaia: izan ala ez izan, or dago arloa (Shakespeare)/Edozein egin-bearra. /Lur-zatia.



ARLO

Arlote. - Itxura ta erarik gabe dabillena.

Armiarma. - Zortzi ankako mamua, sabel-zorro andiduna, jaten dauzan mozo-
rroak arrapetako eun zuria
cioten dauana.

Arnas. - Arnasa artzerakoan aotik urteten dan aizea. / Bizidunak aizea artu ta eralduta botatea.

Arnaska. - Estutasunez arnasa artuz / Ilteko zorian.

Arnas-Oska. - Arnasa estutasunez artuz.

Aro. - Eguraldi: aro ona dago gaur arratsaldean. / Gauza batek irauten dauan aldia: zartzaro, gaztaro.

Arutz. - Zur leunak lantzen dauzana.

Arpegi. - Bekokitik okozperainoko buruaren aurrekaldea.


Arpegi-andi. - Lotsa gitxikoa.

Arpide. - Aldizkari bat artze-ko izena ta ordainsaria emotea.

Arpidedun. - Arpidea eginda dagoana.

Arra. - 21 zentimetroko neurria.

Arrabita. - Soiñu-gaillua.



ARRABITA

Arrabitari. - Arrabita jotzen dauana.

Arrain. - Uretako aberea, odol gorriduna ta zakatzetatik arnasa artzen dauana.



ARRAIN

Arraindegi. - Arrainak saltzeko tokia.

Arrainketa. - Arrainak eta sare, kañaberaz edo artzea.

Arran. - Abercak lepotik dingillizka eroaten daberen txilina.



ARRAN

Arrangura. - Barruko kezka.

Arrano. - Egunez dabillan egazti arrapakaria, begi zolierrotsu, egazkada arinekoa.

Arrantz. - Astoaren abotsa: astoak arrantzaka, gizon batzuk nor naz nika.

Arrantzale. - Arrainak arrapatzen dituana.



ARRANO

Arrapakari. - Moko-erpeak gogorrak, zorrotzak eta kakotuak dituan egazti aragi-jalea.

Arrapaladan. - Arineketan, arin bai arin.


Arrapatu. - Igesi doanari eskua bota. / Zer edo zer artu.

Arras. - Guztiz.

Arrats. - Egunaren azkenengo orduak.

Arratsalde. - Egunaren azkenengo uneak.

Arratz. - Soiñugaillua, biribil-antzekoa, barruan utsik, goi-bealdetan narruz estalia, joka soñua ataraten dauana.



ARRATZ

Arraun. - Uretan indar eraginaz ontziak ibiliarazteko zurezko tresna, endai estuluzearen antzekoa.


Arrausi. - Astiro ta sakon arnasa artu ta astiro botatzea, gurazta aoa zabal-zabalduez.

Arrautza. - Biribil-antzeko gorpuzkia, endakia barrizatzeke emeak egindakoa.

Arreba. - Gizonarekiko guraso bardiñak dituan emakumea.




ARRAUN



ARRAUTZA

Arresi. - Arrizko esia.



ARRESI

Arreta. - Esan edo egitera goazanerako ardura berezia.

Arrezkero. - Aldi batetik aurrerakoan.

Arri. - Izaki gogor samarra, ez lurrezko ez metalezkoa.



ARRI

Arrika. - Notin edo gauza bateri arriak bota. / Arri-jaurtika.

Arrikatu. - Notin edo gauza bat arrika erabili.

Arriaren. - Arrituta gelditzea.


Arritu. - Arrizko egin. / Arri ta zur gelditu.

Arro. - Arrokeriak darabilena.

Arrobi. - Arria ataraten dan lekua.

Arrokeri. - Buruaz lar artuta egotea

Arrosa. - Arkakaratsaren lorea.



ARROSA

Arrotu. - Arrokeriz bete. / Gortutz bat arolago egin: orea arrotzen danean... / Astindu: autsak arrotu.

Arrotz. - Inõorenean ostatuz dagoana / Erbestekoa dana edo erbestetik datorrena.

Arrotzetxe. - Arrotzak artu ta janariak emoten diran lekua.

Arriu. - Ur-lasterrak lurrean egindako sakontasuna.



ARRU

Artaburu. - Artoaren orrazia.

Artalde. - Ardien taldea.

Artazi. - Galtzairuzko orri biko tresna; alkartzen dauzan ardatzaren gainean igitzen dira orriok.

Arte. - Ezbearrak eta gogoa nastau barik jasateko onindarra.

Arte. - Ezkurrak emoten dituan zugatza, zur sendogogorrekoa.

Artegi. - Ardiak biltzen diran lekua.

Artetsu. - Artez ugari dan lekua. / Gauza bat egiteko artea dauana.



ARTAZI

Artez. - Ez batera ez bestera makurtzen ez dana: Gizon arteza da ori / Batetik bestera artekoetan gelditu barrik doana: bide au artez-artez iturrira doa.

Arteztu. - Artez egin, ipiñi.

Artitz. - Arrian egindako idazki laburra.



ARTITZ

Arto. - Buruan garaun lodi-bellegiak emoten dauzan landara.

Artu. - Eskuratu.

Artule. - Ardi-arien ulea, eunak eta egiteko iruten dana.

Artz. - Esku-oinen azpi-gaiñean dabillen abere bular-dun aragi-jalea, oso ulet-sua; buru andi ta begi txikiak ditu; esku-ankak sendo-lodiak; bakoitzean bost atz eta atzazkal gogor-kakodunak, buztana guztiz motza.

Artzekodun. - Betebear bat eskatzeko eskubidea daukana.



ARTZ

Ar. - Soin azurgabekoa, biguna, biribil-luzea, mear-tuerrez ta erestunetan bezela zatitua.

Asaba. - Len bizi izandakoa: gure asabak ez dakigu nundik etorri ziran, bai ordea, nora joan bear dogun guk.

Asago. - Leku edo aldi urru-nean.

Asaldata. - Gauzen ganora ta era ona, pakea nastau.

Asarratu. - Asarrez jari.

Asarre. - Notin edo gauza baten aurka iguina edo gorrotoa gogoan sortzen dauskun grina.


Asartu. - Arriskuzko zerbaiterako erabagia artu.

Ase. - Jateko edo edateko gogo bete. / Naiko ta lar eginda.

Asi. - Gauza bateri asiera emon. / Gauza batek asiera izan: ondo asi da eguna; Ikastaroa asi dogu.

Asiera. - Zerbaiten lenengo unea.

Aska. - Abereak jateko kutxantzekoa.



ASKA

Askaldu. - Askaria jan.

Askari. - Arratsaldean, apaldu baiño len, egiten dan jatordu ariña.

Asko. - Oi baiño geiago.

Askotan. - Bein ta barrizko unetan.

Asmamen. - Asmatzeko almena.

Asmatu. - Ekinaren ekinaz buruan zerbait sortu. / Zantzu batetik zerbait igarri edo zerbaiten barri izan: emetik txistulariak asmatu dodaz.

Asmo. - Zerbait egin edo ez egiteko gogo: ara joateko asmoa dogu. / Gauza bat zuzentzen dan elburua: orixe zan nire asmoa.

Asmutsu. - Asmo andiz edo ugariz diarduana.

Aspaldi. - Gaur arteko lengo aldia.

Aspaldian. - Denpora dala.

Asperen. - Abots negartiz barruko atsekabea agertzea: Jadanik dut aditzen zorion andia, ezkila maitearen asperen ezta.

Asperkunde. - Artutako bigegabe edo kalteagaitik aritzen dan ordaingarria.

Aspertu. - Cogait egin, eragin.

Astakeri. - Zentzungabeko esan edo egite nekagarria.

Aste. - Igandean asi ta larunbatan amaitzen dan zazpi egunen errenkada.

Astearte. - Asteko irugarren eguna.

Asteazken. - Asteko laugarren eguna.

Astegun. - Aste-bitarteko bear-eguna.

Astelen. - Asteko bigarren eguna.

Asti. - Arazorik bako aldia.

Astindu. - Zigorkadak emon / Batera ta bestera erabilli. / Gauza bat aidean indarrez erabilli, joka autsak kentzeko ta abar.


Astiñaldi. - Astintze bat emon ta jasatea. / Zigorkadaz eta ukaldiz erabiltea.

Astiro. - Patxadaz. 'Astiz. Astia artuta

Asto. - Atzakal bakardun aberea.

Asun. - Azala ikutuaz bat azkura emoten dauan bedarra.

Ataburu. - Atearen goikaldea.



ATABURU

Atal. - Gauza baten zatia.

Ataldu. - Ataletan zatitu.

Atara. - Barruan egoana kanpoan ipiñi. / Dagoan egoeratik notin bat kendu.

Atari. - Etxeko lenengo atala; bertatik sartzen da beste-etara ta bertan dago ate nagusia.


Atarramendu. - Gauza batetik ataraten da obaria. / Egi-pen edo ebazpen bateri darraikion ondorena.

Atarte. - Etxe batzuetan dagoan leku agiria, geiñetan aterpez inguratua.

Ataurre. - Atari-aurreko aldea, kanpotarrak barruratu ez daitezkan.

Ataza. - Ardurazko eginbearra: Ataza bat kendu dot

Ate. - Zurezko, burdiñezko -edo uztaiia, orpoan jarri ta beste aldean giltzez-edo lotuta, sartu-urtenak galera-zoteko balio dauana.




A T E

Ateraldi. - Barrutik kanpora joatea. / Esan zorrotz eta jatorra: bertsolariak ateraldi bakoitzik izaten dabe!

Aterpe. - Igesleku.

Aterpe. - Tellatu ta guztiko lekua, gizonak-eta euritatik gordetzeko.



A T E R P E

Aterri. - Euria gelditu dan unea: Euri naiz aterri, ator gurera sarri.

Atertu. - Euria gelditu.

Atezain. - Ateari dagokiozaren ardura daukana.

Atondu. - Era egokian gauzak ipiñi.

Ator. - Oialezko barruko soinekoa.

Ats. - Usain txarra.

Atsarte. - Bearrean egiñiko geldialdia.

Atsedan. - Soin-gogoen nekeetan aringarria.

Atsegin. - Gogozko zarraztada.

Atsegindu. - Atsegin emon, artu.

Atsegingarri. - Atsegiña emoteko gauza dana.


Atsekabe. - Tamal andia.

Atsekabetu. - Atsekabe emon; atsekabez egon.

Atso. - Urte askodun emakumea.

Atsotitz. - Askok erabilten daki- en esaera zorrotza.

Atx. - Landu gabeko arri andia.



A T X

Atxamur. - Atxamurkatu egi- tea.

Atxur. - Burdiñezko endai- dun tresna, kirten ta guz- tikoia, lurra arrotzeko-ta erabillia.



A T X U R

Atz. - Gauzak itxitako azta- rrena. / Gizonaren esku-oi- ñen bost atal luzeak. Abe- reengan bost baiño gitxiago bere izaten dira.

Atzamar. -Esku- ko atza.

Atzamarka. - A- tzamar egiñaz.

Atzapar. - Abere batzuen atza- mar eta atzaz- kaldun eskua

Atzazkal. - Abe- reen atzetan sortzen dan a- zurrezko atala.

Atze. - Azkenen- go aldea /Nor- beraren bizka- rraldera da- goan aldea.

Atzelari. - Atzeko aldean diarduana.

Atzeman. - Aurretik doanagaz bat e- gin. / Eutsi, ora- tu: Atzeman zai- tut.

Atzera. - Atzeko al- dera. / Gogoz ori- kasa: Gaztetxo ori atzera da, danon aurrean dagoane- an, beintzat.



A T Z A M A R




A T Z A Z K A L

Atzeragarri. - Eragozpena.
 Atzeraka. - Atzera ta atzera joanaz.
 Atzerakuntza - Asmo batetik atzera egin edo eragitea.
 Atzerapen. - Gerorako itxitea. / Atzeratuz edo galduz joatea.
 Atzeratu. - Atzera joan, eroran. / Beranduago izan, etorri.
 Atzerri. - Erbestea: Atzerri, otso-erri.
 Atzindu. - Idatzia kendu. / Gauza bat suntsiarazi.
 Atzipetu. - Ez dana egitzat sinistuteko zirikatatu.
 Atzitu. - Igeska doanari eskua bota. / Giltzapera bialdu.
 Atzizki. - Itzak mugatu edo eratzeko azkenean jartzen yakezan izkiak: Gizonagaz, Mendieta, gaztaro.
 Atzo. - Gaurkoaren aurreko eguna, egunean.
 Aukera. - Asmoz eta gogoz aukeratzea. / Aukeratzeko azkatasuna.
 Aukeran. - Zenbat gura. / Norberaren gogora.
 Aukeratu - Norbait edo zerbait gurago izan. / Egikizun baterako aukeraz izentau.
 Aul. - Indar gtxikoa.

Aulki. - Bizkardun bakar-jesarlekua. / Zurezko jesarlekua.
 Aunatu. - Neka-neka egin.
 Aunitz. - *Begira*: Asko.
 Auntz. - Etxe-abere ausnarlaria, bularduna.
 Aupada. - Leiaketa baterako deia.
 Aupaka. - Aupadak egiñaz.
 Aupatu. - Betik gora zerbait igitu.
 Aur. - Umearoan dagoana.
 Aurka. - Aurre egiñaz: etsai gogorren aurka burukatu eban.
 Aurkeztu. - Norbaiten aurrean jarri.
 Aurki. - Ezbai andirik gabe: Zein bultzi da ori? Plentzi-koa, aurki. / Luzaro barik: Aurki dira emen gure lagunak.
 Aurkitu. - *Begira*: Arkitu.
 Aurre. - Aurreko aldea.
 Aurrerarlari. - Diru-eralketatik zati bat gordetzen dauana.
 Aurrerantzean. - Emendik, gaurtik aurrerakoan.
 Aurrerapen. - Aurrerantza, geiagora edo oberantza egitea.

Aurreratu. - Aurrera egin, eroan / Aurrea artu / Eralkitzen danetik zati bat gorde.
 Aurresku. - Euskal-dantza. / Dantza orretan lenengoa.
 Aurrez. - Aukeratutako aldian baiño len.
 Aurtan. - Oraingo urtean.
 Aurtzaro. - Aurak izaten garan aroa.
 Ausardi. - Arrisku daukan zerbaiterako zirt edo zart egiteko kemena.
 Ausardikeri. - Zirt edo zarteko bildurbako erabagia.
 Ausartu. - Zirt edo zart egiteko kemena izan.
 Auskor. - Austeko erreza.
 Ausnartu. - Abere batzuk orretarako dauken birotik, jatekoa aora biurtu ta zetu. / Gogoan sakonki erabilli: ausnartu ondo erabagia artu baiño len.
 Auspo. - Aizea batu ta zuzenbide batera botatzeko tresna.



A U S P O

Autarki. - Biltzar baten gai edo notin bat aukeratzeko emoten dan eritxia.
 Autatu. - Elburu baterako gauza edo notin bat aukeratu.
 Auteskunde. - Egikizun baterako autarkiz egiten dan giza-izendantzea.
 Autortu. - Asmo-egipenak agirian jarri. / Pakatariak entzuleari bere obenak agertu.
 Autu. - Ikus. Autatu.
 Autu. - Alkarregaz etxeko lez itz egitea.
 Auts. - Lur-zatitxoa. / Eiota gero txiki egindako gauzen ondarrak.
 Autsi. - Indarrez apurtu.
 Auzi. - Eztabaida. / Lege-arauz alderdi biren arteko eztabaida.
 Auzitegi. - Auziak egiten diran etxea.
 Auzo. - Erri andiak bananduta dagozan alderdiak.
 Auzoko. - Leku berean beste bizitoki baten beregain bizi dana: Telleri'ko Manu nun bizi dan ba-dakizu? Jakingo ez dot, ba? Gure suzokoa da.
 Auzpez. - Aoz bera.
 Auzpeztu. - Auzpez jarri.

Axanpa. - Barruko kezka.
 Axote. - Idazteko ura.
 Aza. - Orri andidun ortuaria.
 Azal. - Estalkia. / Kanpo-aldea.
 Landaren kanpoko aldea. /
 Abereen soingaineko nar-
 rrua.
 Azaldu. - Agirian jarri: azaldu
 egidazu zelan dan ori /
 Agertu: inor azaldu da
 emen gaur goizean?
 Azalpen. - Azaltzeko erea. /
 Jakingariak emotea.
 Azaro. - Zemendia.
 Azeri. - Bulardun piztia, ara-
 gijalea, buztan luzea.
 Azi. - Erne ta gero berregi-
 ten dauan landaren atala.
 Azitik dator landara. / Andi
 egin: erri au asko azi da az-
 kenengo urteotan. / Elikatu
 ta mendu: gurasoak semeak
 ondo azi bear dabez.
 Azkar. - Bulartsua: gudari
 azkarrak ziran areik. / Arin:
 azkar ibilli, mutil.
 Azkartu. - Kemena emon.
 Azkatasun. - Azke egotea:
 Una da artoa denean liber-
 tatea. / Zerbait egiteko edo
 ez egiteko, era batera edo
 bestera jarduteko, gizonak
 daukan almena; Erabagi
 ondo, azkatasun guztiaz.

Azkatu. - Lokarria kendu:
 azkatu egidazuz zapata-lo-
 karriak / Azkatasuna emon:
 azkatu bear dogu erri
 gaixo a.

Azke. - Azkatasunaz ekiteko
 gauza dana: neu zeugandik
 azke nago ta pozik daukat
 biotza.

Azkenengo. - Azkenean da-
 goana: azkenengo eguna
 da-ta, goazen guztiok dan-
 tzara.

Azketsi. - Azketzat euki. /
 Parkatu: azketsi egidazu
 oker egiña.

Azkon. - Aztamakil labur ta
 estu antzeko izkillua, eskuz
 jaurtitzen dana.



A Z K O N

Azkordin. - Otx larregiak sor-
 tutako esku-oin-belarrien
 anditua, bero ta azkura
 emoten dauana.

Azoka. - Salerosketak egiteko
 lekua. / Orretarako aukera-
 tutako leku baten saleros-
 ketak egitea.

Azpi. - Beko aldea.


Azpil. - Ezpan-aldean sako-
 nean baino zabalago dan
 ontzia, garbitasunak egite-
 ko erabilten dana. / Goibe
 gitxiko ontzi biribilla, er-
 dian sakon ta iguruan laua,
 maian janariak atara ta
 jateko.



A Z P I L

Azpiratu. - Menpean euki:
 ekinaren ekinaz etsai guz-
 tiak azpiratuko doguz.

Azta. - Aztuntasuna neurtze-
 ko tresna.



A Z T A

Aztaka. - Ikumenaren bidez
 asmatu edo ezagutzeko,
 gauza bat ikutuka erabili.

Aztal. - Ankaren belaupen-az-
 piko atal mamintsu-lodia.

Aztamakil.-Kirten luzedun iz-
 killua; bertan burdin zorro-
 tza dauka aitzo-antzekoa.

Aztamuka. - Estu-iku-
 tuka.

Aztarna. - Aztarren.

Aztarren. - Gauza bat
 leku baten izan da-
 lakoaren ezaugarria.

Aztatu. - Aztuntasuna
 neurtu. / Eskuka era-
 billi.

Azterkatu. - Zeatz ara-
 katu.

Azterketa. - Zerbaiten
 zertzeladeetzaz egi-
 ñiko billaketa. / Nor-
 bait edo zerbaiten
 egokitasuna egizta-
 tzeko bidea. / Zer-
 baiti buruzko billaketa.

Aztertu. - Aztarrenak billatu. /
 Zerbait edo zerbaitetzaz
 arretaz galde egin.

Aztetxe. - Aziera emoteko
 etxea.

Azti. - Aztikeri-bidez etorki-
 zuna edo gauza ezkutauk
 igartzen dauzana.

Aztikeri. - Azti-eraz igartea.

Aztu. - Gauza baten gomuta
 galdu. / Gauza bat gomutatik
 galdu.

Aztun. - Aztuntasuna dukana.



AZTA-
 MAKIL

Aztunagotu. - Aztunago egin.

Aztuntasun. - Galerazoten dauan eragillea suntsitzean, gorpuzkiak lurrera daben joera.

Azubil. - Orri-adarrak beregan dituan landaren atala.

Azur. - Abere-soiñaren atal eskon-gogorra; guztiak batean azurrutsa deritxona egiten dabe.



A Z U R

Azurkin. - Atxurragaz egiñiko lana.

Azurrintu. - Azurrak kendu, azur gabe itxi.

Irarkizun-aztertzaileak:

Gallastegi'tar Kauldi,
Erretolaza'tar Joseba Andoni,
S. Anton'go abadeak.

Urrengo idaztian: B - D, izkiak.